

Lehendabizi eskerrik asko zuen babesa ematera gerturatu zareten sindikatu, eragile eta norbanakoei. Elkartasuna dugu langileok injustizia orori aurre egiteko tresna nagusia. Gora gu!

Prentsaurreko honetan Eraginekin Ostalaritza Duina aldarrikapenaren baitan antolatzea erabaki genuen hiru ostalaritzako langileok jasan dugun erasoaren berri ematera gatoz. Jakina da turistifikazio prozesu indartsua jasaten ari duen Bilbo honetan ostalaritzaren sektoreak hartu duen garrantzia. Asko hitz egin izan da ustez jarduera ekonomiko horrek sortzen duen aberastasunaz baina, oso gutxi bertan lan egiten dugun langileok jasan behar izaten ditugun baldintza eta egoeretz.

Hori dela eta, urte hasiera honetan Eraginek bultzatuta ostalaritzan lanean genbiltzan hamarnaka langile saretzen hasi ginen. Elkartu eta berehala konturatu ginen erabat atomizatuta geunden arren, problematika oso beretsua partekatzen genuela. Horrekin batera, legez zegokigun ostalaritzako hitzarmena ezagutzeko aukera izan genuen, eta bertan onartuak zeuden eskubideetako asko gure lanpostuetan ikusi ere ez genituela egiten ohartzeko balio izan zigun. Uste izan genuen sektorearen prekarietate egoera duintze aldera lehen pausu egokia zela askori ezezagunak zitzaizkigun eskubide horiek gainontzeko langileekin partekatzea. Horregatik, hasi genuen hitzarmenaren sozializazio kanpainia eta, horregatik, atera genituen taberna ingurutan jartzeko kartel informatibo hauek.

Kartel hauek ipintze hutsagatik Udaltzaingoak gu identifikatu eta Bilboko Udalak bere ordenantzaren bidez 2250€-ko isuna ezarri digu gutako bakoitzari, guztira 6750€. **Argi eta garbi adierazi nahi dugu, hemen eta orain, zigor hau ASTAKERIA hutsa dela eta muga guztiak igarotzen dituela.** Zoratuta al gaude? Kartel batzuen bidez babesgabetasun osoan dauden langileei beraien lan eskubideen berri emateagatik ia 7000€-ko zigorra? **Benetan ONARTEZINA.**

Ez da kasualitatea Bilboko Udalak ostalaritzako langileak jo puntuan jarri eta antolatzen hasi eta berehala erreprimitu izana. Ongi baino hobeto dakite beraien postaleko hiri hau ezin dela mantendu gure bizitzak prekarizatzen ez bada. Etenik gabe entzuten ditugu Bilbori buruz harrotasunez hitz egiten baina, badirudi Bilbon lan egin eta bizi garenotaz ahaztu egiten direla. **Bada, jakin dezatela, gu gara hiri hau egunero aurrera ateratzen dugunak, gu gabe ez dago Bilborik!**

Udalak zigor hauekin mezu argia bidali nahi izan digu: "ez zaitezte zuen eskubideak aldarrikatzeko antolatzen saiatu ere egin." Baina, ez dugu eraso hau onartuko. No Es Lo Que Hay. Ez gaituzte isilduko. No Es Lo Que Hay. **Bilboko Udalarari isun bidegabe hauek bertan behera uztea exijitzen diogu.** Horrez gain, ostalaritzako langileen lan baldintzak defendatzeko dinamika indartuko dugu. Sektorean bizi dugun egoera salatu eta antolatzen jarraituko dugu. **Langile elkartasunez, duintasuna irabaziko dugu!**

**Jo Ta Ke, Ostalaritza Duina lortu arte!  
Gora langileon borroka! Gora Eragin!**